

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DONEMILIAGAKO UDALA

#### 2019/2020 ikasturtean musika ikasketak egiteko laguntzen deialdia

Udalbatzak, 2020ko martxoaren 11n egindako osoko bilkuran, 2019/2020 ikasturtean musika ikasketak egiteko laguntzak arautzen dituzten oinarriak onetsi zituen.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorrak 9.3 artikuluan eta Administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45.1 artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira, denek jakin ditzaten.

#### ZIOEN ADIERAZPENA

Donemiliagako Udalaren ustez, musika hezkuntzak garrantzi handia du pertsonen trebakuntzan eta herri honetako kultura eremu tradizionalan. Hortaz, horren sustapena garatu beharreko helburu bat da. Sustapen lan hori gauzatzeko moduetako bat da laguntzak ematea, udalerriko herritarrei musika prestakuntza jaso dezaten laguntzeko, bere baliabideak ez direlako nahiko helburu horri ekiteko.

#### Lehenengo oinarria. Deialdiaren xedea

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzek xede dute finantzatzen laguntzea Donemiliagako udalerrian eroldaturiko adingabeek udalak berak eta musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuek 2019/2020 ikasturtean antolaturiko musika ikasketetan izena emateak eragindako gastuak, salbu eta udalak hitzartutako musika eskoletako izen emateen gastuak.

Musika irakaskuntzaren gastuak dirulaguntzen bidez finantzatuko dira, eta honako hauek aplikatuko zaizkie: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta bere arautegia (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa); Toki Korporazioen Zerbitzuen arautegia; plan estrategikoa; eta, azkenik, dirulaguntzen udal ordenantza.

#### Bigarren oinarria. Pertsona onuradunak

Onuradun izango dira jardueran izena ematen duten unean adingabeak direnak, baldin eta, diruz lagunduko den jardueran izena emateko epea hasi aurretik, gutxienez sei hilabetez segidan Donemiliagako udalerrian eroldatuta egon badira, eta Donemiliagako Udalak edo musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuek egindako musika jardueretara joaten badira, salbu eta hitzartuek egiten dituztenetara, 2019/2020 ikasturtean.

Hala ere, diruz lagundu beharreko jarduera egingo duen adingabearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatu behar du laguntza.

#### Hirugarren oinarria. Diruz lagundu daitezkeen programak

Laguntza deialdi honen ondorioetarako, dirulaguntzak musika ikasketari (1. mailako irakasgaiak, musika hizkuntza, instrumentua, harmonia modernoa, instrumentu taldea edo konboa, ahots taldea, irakaskuntza indartua) dagozkion matrikula eta hileko kuotak ordaintzeko emango dira, deialdiko zazpigarren oinarrian ezartzen den bezala.

#### Laugarren oinarria. Onuradunen eta eskatzaileen betebeharrak

Hauek dira eskatzaileen betebeharrak:

a) Zentroan ematen zaien dedikazioa (orduak) ondo aprobetxatu dutela frogatu behar dute; frogatu ezean, baliteke emandako dirulaguntza ez jasotzea. Ikasturtean musika hizkuntzan 10 aldiz edo gehiago edo instrumentuan edo instrumentu taldean 6 aldiz edo gehiago huts egiten badute ez zaie emango laguntzarik. Ez dira kontuan edukiko gaixotasunagatik edo idatziz justifikatutako arrazoiren batengatik egiten diren hutsak.

b) Donemiliagako Udalari betekizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea. Hala-ber, egiaztatu egingo da diruz lagundu daitekeen jardueran izandako bertaratzea, bai eta aprobetxamendua egokia izan dela ere.

c) Dirulaguntza honen esparruan egiten diren egiaztapen jarduerak onartu behar dituzte eta eskatzen zaien informazioa eman behar dute.

d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza edo diru sarreraren bat lortuz gero, ahalik eta azkarren jakinarazi behar diote Donemiliagako Udalari.

e) Jasotako funtsak nola erabili diren frogatzen duten agiriak gorde behar dituzte, egiaztatu eta kontrolatu egin daitezke eta.

f) Dirulaguntza itzuli behar izatea eragiten duten inguruabarretako bat gertatuz gero, jasotako kopurua itzuli behar dute.

g) Eskaeran ezarri beharreko daturen edo agiriren bat ematen ez bada edo datu faltsua ematen bada, eskaera baliogabetuko da, eta horrez gainera eskatzaileari erantzukizuna eskatu ahal izango zaio.

h) Eskatzaileak egunean izan behar ditu indarreko xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai onuradun izateko bai onuradun izaten jarraitzeko emandako dirulaguntza likidatu arte.

#### **Bosgarren oinarria. Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak**

Laguntzen deialdian parte hartzeko eskaera nahitaez egin behar da udalak emandako ereduarekin. Eskaera udalaren erregistro orokorrean edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako tokietan aurkez daiteke.

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Eskatzailearen NANaren fotokopia. Eskatzaileak jarduera egiten duen onuradun adingabearen aita, ama edo legezko tutorea izan behar du.

b) Familia liburuaren fotokopia, non jasotzen diren eskatzailearen eta adingabe onuradunaren datuak; bestela, eskatzaileari adingabearen legezko tutoretza ematen dion ebazpena.

c) Kontu korrontearen zenbakia eta titularraren izen-abizenak eta NAN zenbakia.

d) Jarduera egiteagatik Udalari edo haren mendeko erakundeari ordainketa egin izana frogatzen duen bankuaren agiria edo, horrelakorik ez, ordainagiriaren kopia konpultsatua (ordainketa egin dela agertu behar da). Era berean, zentroak edo dagokion udalak emandako ziurtagiria edo frogagiria aurkeztu daiteke, tasak ordaindu direla jasotzen duena, baina ordaindutako zenbatekoa eta ordainketak egunean dituela ere agertu beharko dira.

e) Jarduera zein zentrotan egin den, haren jatorrizko ziurtagiria, honakoak adierazten dituena: jardueraren hasiera eta amaiera data, emandako eta hartutako orduak guztira, jardueraren kostua eta musika ikasketak. Donemiliagako Udalak eskatuko du ziurtagiri hori.

f) Zinpeko adierazpena, beste dirulaguntzarik eskatu den ala ez argitzen duena; halakorik eskatu bada, eskaeraren fotokopia konpultsatua. Eskaerari erantzun badiote, dirulaguntza onartzen (emandako zenbatekoa adierazi behar da) edo ukatzen duen ebazpenaren fotokopia konpultsatua. Ebazpena emateko zain egonez gero, horren berri eman behar da (II. eranskina).

g) Adierazpena, argitzen duena ez dirulaguntzaren eskatzaileak ez onuradunak ez dutela debeatuta onuradun izatea azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 13. artikuluan ezartzen duenaren arabera (III. eranskina).

h) Donemiliagako errolda ziurtagiria, onuraduna (adingabea) udalerrian noiztik dagoen erroldatuta adierazten duena. Donemiliagako Udalak emango du ziurtagiri hori.

Eskatzaile batek adingabe onuradun bi edo gehiago baditu bere kargura eta haiengatik dirulaguntza eskatu nahi badu, adingabe guztiak eskaera bakar batean bildu behar ditu eta artikulua honetan eskatzen diren agiriak adingabe onuradun bakoitzeko aurkeztu behar ditu.

Halaber, adingabe onuradunak diruz lagundu daitekeen jarduera bat baino gehiago egiten badu, orduan ere eskaera bat bakarrik aurkeztu behar da eta bertan jarduerok azaldu behar dira eta bakoitzari buruzko agiriak erantsi behar dira.

#### **Seigarren oinarria. Agiriak aurkeztea**

Eskaera eta bosgarren oinarrian eskatzen diren agiriak Donemiliagako Udalaren erregistroan aurkeztu behar dira 2020ko irailaren 23a baino lehen.

Eskaera aurkeztutakoan, aztertu egingo da, ezarritako baldintza guztiak betetzen diren eta behar diren agiri guztiak erantsi diren egiaztatzeko, deialdi honetan ezartzen denarekin bat etorritz. Eskatzaileak hala egin ez badu, ohartaraziko zaio hamar (10) egun balioduneko epea daukala aurkeztu beharreko agiriak eta datuak zuzentzeko edo osatzeko, eta azalduko zaio hori egin ezean eskaeran atzera egintzat jo ahal izango dutela ebazpen baten bidez. Ebazpena Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritz eman beharko da.

#### **Zazpigarren oinarria. Dirulaguntzen zenbatekoa**

Onuradun bakoitzak gehienez ere dirulaguntza hau jaso ahalko du:

- 180,00 euro, baldin eta onuradunak izena eman badu Donemiliagako Udalak antolaturiko musika ikasketetan.
- 180,00 euro, baldin eta onuraduna musika ikasketetako bi maila edo gehiago egiten ari bada musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuetan.
- 130,00 euro, baldin eta onuraduna musika ikasketen arlo bat egiten ari bada musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuetan.

Oinarrietan jasoriko dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango musika ikasketen kostu osoaren ehuneko 50 baino gehiago, eta era berean, ezingo da gainditu udal aurrekontuaren gehienezko muga.

Onetsitako aurrekontuko aplikazioa nahikoa ez bada eskaera guztiei aurre egiteko, gehienezko dirulaguntza proportzioan murriztuko da.

#### **Zortzigarren oinarria. Aurrekontu zuzkidura**

Dirulaguntzen zenbatekoa, 3.000 euro, partida honen kontura ordainduko da: 326 482001 (Hezkuntza zerbitzu osagarriak).

Dirulaguntzak borondatezkoak izango dira eta ikasturtean baino ez dira aplikatuko. Ezin izango da arrazoitzat eman aurrekoan jaso izana eta ezin izango da eskatu dirulaguntza handitzeko ez berrikusteko, salbu eta aparteko inguruabarrak direla-eta horretarako arrazoiak badaude eta udalak onartzen badu.

Deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzak emateko ezinbestekoa izango da ebazpena ematen den unean aurrekontuan dirua egotea baliagarri, bai eta kreditu egokia eta nahikoa egotea ere.

Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzen guztirako zenbatekoa ezin da izan Udalbatzak urtero onartzen duen aurrekontu partida baino gehiago.

#### **Bederatzigarren oinarria. Dirulaguntzen bateragarritasuna**

Udalaren laguntzak bateragarriak dira eskatzaileek lortzen dituzten beste guztiekin. Horregatik, eskaera aurkeztean adierazi behar da xede bererako beste laguntza edo dirulaguntzarik eskatu den ala ez. Eskatu bada, honako hauek aurkeztu behar dira: eskaeraren fotokopia konpultsatua eta dirulaguntza onartzen (zenbatekoa adierazita) edo ukatzen duen ebazpenarena; ebazpena eman ez bada, eskatzailea haren zain dagoelako adierazpena. Udalaren dirulaguntzaren zenbatekoa (bakarrik zein beste erakunde batzuen dirulaguntza edo laguntza batzuekin bat eginda) ezin da izan inolaz ere jardueraren kostua baino gehiago.

Onartutako dirulaguntza berriro aztertu ahal izango da, gastuaren finantzabidea zein den eta laguntza edo beste diru sarrera batzuen ekarpen osagarriak zenbatekoak diren jakin ondoren. Horrelakoetan haxe izango da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa: diru sarreren eta gastuen arteko azken likidazioaren ondoriozko defizita.

#### **Hamargarren oinarria. Eskabideak aztertu eta ebaztea**

Laguntzen ebazpena emateko eskumena alkate-lehendakariak dauka; batzorde informatiboaren txostena eta beharrezko diren txosten teknikoak jaso ondoren emango du ebazpena.

Egoki joz gero, aurkeztutako agiriei buruzko datuak edo azalpenak eska ditzake udalak, eskaerak hobeto aztertu edo baloratzeko.

Ebazpena udalean eskaerak aurkezteko epealdia amaitzen denetik hiru hilabete pasatu baino lehen eman eta jakinarazi behar da.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du eta ebazpenean bertan adieraziko da zer errekurtso jar daitezkeen haren aurka. Ebazpena Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da.

#### **Hamaikagarren oinarria. Dirulaguntza ordaintzea**

Dirulaguntzaren zenbateko osoa (ehuneko 100) laguntza emateko ebazpena onestean ordainduko da.

#### **Hamabigarren oinarria. Dirulaguntza galtzea**

Laguntzen onuradunek jarraian zehaztuko diren baldintzetako bat betetzen ez badute, espedientea irekiko da jasotako kopuruak eta dirulaguntza ordaindu zenetik sortutako berandutze interesak itzularazteko.

Hona hemen zein kasutan irekiko den dirulaguntza galtzeko espedientea:

- a) Deialdi honetako laugarren oinarrian ezartzen den gutxieneko asistentzia ez frogatzea.
- b) Aurkeztutako eskaeran edo agirietan datu faltsuren bat agertzea.
- c) Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka edo beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, onuradunari diruz lagundu zaion jardueraren kostua baino gehiago izatea.
- d) Donemiliagako Udalari ez bazaio jakinarazi beste dirulaguntza publiko edo pribatu batzuk jaso direla, nahiz eta ordurako Udalak likidazioa onetsita izan.
- e) Eta, orokorrean, deialdi honetan ezartzen den betebeharren bat ez betetzea.

**Hamahirugarren oinarria.** Dirulaguntza eskatzeak oinarri hauek eta Dirulaguntzen Udal Ordenantza ezagutu eta onartzen direla esan nahi du.

**Hamalagarren oinarria.** Donemiliagako Udalak datuak benetakoak diren eska eta egiazta dezake, bai eta oinarri hauetan arautzen dena betetzen den ere. Horretarako, pertsona onuradunek hitzematen dute dirulaguntzaren xede den jardueraren inguruan eskatzen zaizkien datuak eta agiriak emango dituztela, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dituenak ere.

Halaber, udalari baimena ematen zaio eskaeraren eta eskatzaileen inguruko informazioa eskatzeko eta datuak, baldintzak edota inguruabarrak egiaztatzeko edo argitzeko. Horretarako, behar diren txostenak eta agiriak eskatu ahal izango dizkie erakunde eta pertsona publiko zein pribatuei.

**Hamabosgarren oinarria.** Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Donemiliagako Udalak ebatziko du.

**Hamaseigarren oinarria.** Oinarri hauetan xedatu ez denerako, honako hauek hartuko dira kontuan: toki araubidearen arautegia; Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia; eta, udalak onetsitako dirulaguntzen udal ordenantza eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

**Hamazazpigarren oinarria.** Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, aukerako berraztertze errekurtsua deialdi hau onetsi duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; organo horren ebazpen esanbidezko edo presuntzioskoaren aurka, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera, edo, ebazpena presuntzioskoa bada, sei hilabeteko epean, errekurtsoarean presuntziosko ezeste hori gertatzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Erdoña, 2020ko apirilaren 21a

*Alkatea*

*ERIKA LETAMENDI HURTADO*

AYUNTAMIENTO DE SAN  
MILLAN  
(ALAVA)



DONEMILIAGAKO UDALA  
(ARABA)

Andia, 9 – 01208 - Ordoñana CIF / IFK: P.0105900-E T: 945-300472 / F: 945-312081 www.sanmillan.eus

**MUSIKA IKASKETAK EGITEKO LAGUNTZEN ESKABIDEA/  
SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA LA REALIZACIÓN DE ESTUDIOS DE  
MÚSICA CURSO ACADÉMICO 2019\_/2020\_**

**ESKAERA ORRIA  
HOJA DE SOLICITUD**

**ESKATZAILEAREN DATUAK (aitarenak, amarenak edo tutorearenak)**  
DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE (del padre, madre o tutor/a)

IZENA / NOMBRE		NAN / DNI	
1. ABIZENA / 1ER. APELLIDO			
2. ABIZENA / 2º. APELLIDO			
Kalea / Calle		Zk / Nª	Solairua / Piso
Herria/ Pueblo			
Posta-Kodea / Código Postal	Udalerría / Municipio		Lurralde / Provincia
e-posta / correo electrónico	Telefono zk. / Nª Teléfono		Sakelakoaren zk. / Nª móvil
Kontu zenbakia / Número de cuenta bancaria			
Baimena ematen dut nire datuak Udaleko datu-basean sar daitezen, udal informaziorako soilik <input type="checkbox"/>			
BAI/SI Autorizo que mis datos formen parte de la base de datos del Ayuntamiento únicamente para efectos Informativos municipales <input type="checkbox"/>			
EZ/NO			

**IKASLEAREN DATUAK // DATOS DEL / LA ESTUDIANTE**

IZENA / NOMBRE		NAN / DNI	
1. ABIZENA / 1ER. APELLIDO			
2. ABIZENA / 2º. APELLIDO			
Kalea / Calle		Zk / Nª	Solairua / Piso
Herria/ Pueblo			
Posta-Kodea / Código Postal	Udalerría / Municipio		Lurralde / Provincia

1

AYUNTAMIENTO DE SAN  
MILLAN  
(ALAVA)



DONEMILIAGAKO UDALA  
(ARABA)

Andia, 9 – 01208 - Ordoñana CIF / IFK: P.0105900-E T: 945-300472 / F: 945-312081 www.sanmillan.eus

**IKASKETEN IDENTIFIKAZIO DATUAK // DATOS IDENTIFICATIVOS DE  
LOS/AS ESTUDIOS**

Nº DE HIJO	IZENA // NOMBRE	JARDUERA (disciplina eta maila, dirulaguntzaren xede diren guztiak) ACTIVIDAD ( disciplina y curso, todas por las que se solicitan)

**DEKLARATZEN DUT / DECLARA**

**Betebehar fiskal eta/edo zerga-betebeharrak beteta dituela** / Estar al corriente en el pago de las obligaciones fiscales y/o tributarias.

**ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA**

Eskatzailearen NANaren kopia, jarduera egingo duen adin txikiko onuradunaren aita, ama zein legezko tutorea /  
Fotocopia del DNI de la persona solicitante, que será el padre, madre o tutor legal del/la menor beneficiario/a que realice la actividad.

Familia-liburua, eskatzailearen eta adin txikiko onuradunaren datuak biltzen dituen, edo dagokion kasuan, adin txikikoarekiko legezko babesa onartzen duen ebazpena /  
Fotocopia del Libro de Familia comprensiva de los datos de la persona solicitante y del/la menor beneficiario/a o en su caso, resolución que le otorgue la tutela legal del menor.

Udalari zein mendeko erakunde bati ordaindu izana egiaztatzen duen jatorrizko banku-agiria, edo dagokion kasuan, ordainagiriaren kopia konpultsatua. (ordainduta dagoela adierazi)/  
Justificante bancario original de pago al Ayuntamiento u organismo dependiente por la realización de la actividad, o en su defecto, copia compulsada del recibo correspondiente (deberá expresar que ha sido abonado).

Baimena ematen diot Donemiliagako Udalari jarduera eskaintzen duen zentroaren jatorrizko egiaztagiria honako informazioarekin: Musika irakaskuntza, jardueraren hasiera eta amaiera data, emandako eta joandako orduen guztizko kopurua eta jarduera hori egiteagatik ordaindu beharreko tasa edo tarifa, erroldatutako onuradunari zein erroldatu gabekoari dagokion tasa adieraziz.

Autorizo al Ayuntamiento de San Millán para que solicite certificado original al centro en el que se realiza la actividad. Deberá indicar las siguientes características: enseñanza musical, fecha de inicio y fin de la actividad, número total de horas impartidas y asistidas, tasa o tarifa que se debe abonar por la realización de dicha actividad indicando cual es la tarifa que corresponde a la persona empadronada de ese municipio y cual la que corresponde a un/una no empadronado/a de ese municipio.

Beste diru-laguntzarik jasoko den edo ez adierazten duen zinpeko aitormena, eta dagokion kasuan, eskaeraren kopia konpultsatua. Eskaerak erantzuna jaso badu, ebazpenaren kopia konpultsatua onartutako zenbatekoa edo ukatua izan dela aipatuz. Dagokion kasuan, ebazpenaren zain dagoela aipatu ( II eranskina) /  
Declaración jurada sobre la existencia o no de otras peticiones de subvención y, en su caso,

2

**AYUNTAMIENTO DE SAN  
MILLAN**  
(ALAVA)



**DONEMILIAGAKO UDALA**  
(ARABA)

Andia, 9 – 01208 - Ordoñana CIF / IFK: P.0105900-E T: 945-300472 / F: 945-312081 www.sanmillan.eus

fotocopia compulsada de la petición. Si la petición ha recibido respuesta, fotocopia compulsada de la resolución indicando la cantidad concedida o si ha sido denegada. Indicar, en su caso, si se está a la espera de resolución (Anexo II).

Diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ez edukitzearen erantzukizuneko adierazpena, eta horretarako legezko inolako debekurik ez izatearena, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13 artikulua zehaztu bezala. ( III eranskina ) / Declaración de no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario/a, señaladas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones relativas a la persona solicitante y beneficiaria de la subvención (Anexo III).

Donemiliagako Udaleko errolda-agiria, onuradunaren ( adin txikikoa ) antzinakotasuna adierazita (Udalak emandakoa).  
Volante de empadronamiento del municipio de San Millán donde conste la antigüedad de la persona beneficiaria (menor de edad). Aportado por el Ayuntamiento.

Sinadura /firma

**ESKABIDE HAU ONDOKO HELBIDE HONETAN AURKEZ DAITEKE**  
ESTA SOLICITUD SE PUEDE ENTREGAR EN:

<p><b>Aurrez aurre:</b> Udalean Andia Kalea, 9 – 01208 Ordoñana (Araba) Ordutegia: astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara <b>Postaz:</b> Posta ziurtatu irekiaren bitartez posta bulegoetan <b>Helbide elektronikoa:</b> <a href="mailto:asanmillan.general@ayto.araba.eus">asanmillan.general@ayto.araba.eus</a> Informazio gehiagorako, deitu: 945 300472</p>	<p><b>Presencialmente:</b> En el Ayuntamiento Calle Andia, 9 – 01208 Ordoñana (Araba) Horario de Lunes a Viernes de 9:00 a 14:00. <b>Por correo postal:</b> En las oficinas de correos mediante correo certificado abierto. <b>Correo electrónico:</b> <a href="mailto:asanmillan.general@ayto.araba.eus">asanmillan.general@ayto.araba.eus</a> Para más información llamar al 945 300472</p>
--	---

**DATUEN BABESA**

Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5ekoa, ezarritakoa betez, Donemiliagako Udalak jakinarazten dizu, inprimaki honen bitartez jaso dituen zure datu pertsonalak, Udalak kudeatzen duen datuak tratatzeko jarduera batean sartuko dituela, xedea administrazio espedienteen izapidetza eta kudeaketa izanik, baita hauetatik eratorritako administrazio jarduerena ere. Ez da aurreikusten hirugarrenei datuak ematea, edukiaren arabera legalki derrigorrakoa izan baliteke ere. Egokia balitz, zure datuak ikusi, zuzendu edo ezabatze eskubidea balla dezakezu, baita bere tratamendua ez baimentzeko edo mugatzeko ere, honako helbide honetara joz ; Donemiliagako Udala: Andia 9, 01208 (Araba.), edo honako helbide elektronikora;

[asanmillan.general@ayto.araba.eus](mailto:asanmillan.general@ayto.araba.eus) Bertan informazio gehiagarria eskatu ahal izango duzularik.

**PROTECCIÓN DE DATOS**

El Ayuntamiento de San Millán, en cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, informa que los datos personales que Vd. nos proporciona se incluirán en una actividad de tratamiento de la que es responsable el Ayuntamiento de San Millán, cuya finalidad es la tramitación, gestión de expedientes administrativos y actuaciones administrativas derivadas de estos. No está previsto la comunicación de sus datos a terceros, aunque se pudiera tener obligación legal según el contenido. Puede ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión y portabilidad de sus datos, de limitación y oposición a su tratamiento, cuando procedan, ante al Ayuntamiento de San Millán, calle Andia, número 9, 01208 Ordoñana – Álava-, o en la dirección de correo electrónico [asanmillan.general@ayto.araba.eus](mailto:asanmillan.general@ayto.araba.eus), en la que también podrán solicitar más información adicional.



DONEMILIAGAKO UDALA  
(ARABA)AYUNTAMIENTO DE SAN  
MILLAN  
(ALAVA)**II. ERANSKINA**

..... jaunak/andreak, nire erantzukizunaren  
pean, honakoa **ADIERAZTEN DUT**:

EZ, ez dut eskatu beste dirulaguntzarik eskaera honetan jasotako  
jarduerarako.

BAI, beste dirulaguntza batzuk eskatu ditut eskaera honetan jasotako  
jarduerarako (erantsi eskaera).

Hala bada, datu hauek bete behar dira:

- Dirulaguntza erakunde honi eskatu zaio:..... (Foru  
Aldundia, Eusko Jaurlaritza, eta abar).

- Dirulaguntza onartu bada, adierazi zenbatekoa (..... euro) eta erantsi  
ebazpenaren fotokopia.

Dirulaguntza ukatu bada, jarri X.

....., 20.....(e)ko.....ren.....(a).

Izpta.:

DONEMILIAGAKO UDALA  
(ARABA)



AYUNTAMIENTO DE SAN  
MILLAN  
(ALAVA)

### III. ERANSKINA

..... jaunak/andreak, nire erantzukizunaren pean ADIERAZTEN DUT ez nagoela azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, 13. artikulua jasotzen dituen onuradun izateko debekuen eraginpean.

....., 20.....(e)ko.....ren.....(a).

Izpta.: